

## ESKUBIDEAK EGIKARITZEKO INPRIMAKIA

### DATU PERTSONALEKIN ERLAZIONATUTAKO ESKUBIDEAK EGIKARITZEKO ESKAERA

#### 1. INFORMAZIOAREN TITULARRAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN-EGIAZTAGIRIAREN ZENBAKIA

*ESKANEATUTAKO DOKUMENTUA KARGATZEKO EREMUA*

POSTA HELBIDEA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

TELEFONOA \*

#### 2. ORDEZKARIAREN DATUAK, HONEN BIDEZ JARDUNEZ GERO

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN-EGIAZTAGIRIAREN ZENBAKIA

*ESKANEATUTAKO DOKUMENTUA KARGATZEKO EREMUA*

POSTA HELBIDEA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

TELEFONOA \*

\* Ikur honen bitartez markatutako eremua ez da derrigorrezkoa eskaera egin ahal izateko. Eremu hori eskatzeko helburua, eskubidearen eskaeratik sortu ahal zaigun zalantzaren bat izatekotan zurekin komunikatu ahal izatea da.

#### 3. EGIKARITU NAHI DEN ESKUBIDEA

Hurrengo eskubideen egikaritzea eska dezakezu: datuen irispide-eskubidea, zuzentze eskubidea, ezeztatze eskubidea, tratamenduaren aurka egitea edo mugatzea, datuak transferitzea, erabaki automatizatuen objektu ez izatea, adostasuna kentzea eta nazioarteko transferentzia batean aplikatzen diren bermeen inguruan informatua izatea.

Jarraian dagoen zerrenda zabalgarrian egikaritu nahi duzun eskubidea adierazi :

**Irispide eskubidea** eta konkretuki, hurrengo zerrenda zabalgarritik jaso nahi duzun informazioa adierazi:

- GARBITANIA n zuri buruzko datuak tratatzen ari garen edo ez.
- Zure datuen jatorria, zuk eman ez badituzu
- Zure datuen tratamenduaren helburuak
- Tratatzen ari diren datuen kategoriak
- Datu pertsonalak zein hartzaileari edo zein hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira.
- Ahal bada, datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren (edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren)
- GARBITANIAk erabaki automatizatuak hartzen dituen zure datu pertsonalak erabiliz, perfilak egitea barne.

**Zuzentzeko eskubidea** eta konkretuki, hurrengo zerrenda zabalgarritik zer nahi duzun adierazi:

- Datu pertsonal osagabeak osatzea
- Errealitatearekin bat ez datozen edo zehaztugabeak diren datuak eguneratu edo zuzentzea

**Ezerezteko eskubidea** eta konkretuki, hurrengo zerrenda zabalgarritik zer jaso nahi duzun adierazi::

- Bildu edo tratatu ziren helburuarentzako jada beharrezkoak ez direla kontsideratzen duzu
- Zure datuen tratamendua oinarritzen dugun adostasuna kentzen duzu eta ezin da beste oinarri juridiko batean oinarritu.
- Modu arrakastatsuan egikaritu duzu tratamenduaren aurka egiteko eskubidea
- Modu ez zilegian tratatu dira datuak
- GARBITANIAri inposatutako lege betebeharrak bat betetzeko datuak ezabatu behar dira

**Tratamendua mugatzeko** eskubidea eta konkretuki, hurrengo zerrenda zabalgarritik zer jaso nahi duzun adierazi:

- Zure datu pertsonalak zuzentzea eskatu duzu, GARBITANIAri arduradun bezala horien zehaztasuna egiaztatzea ahalbidetzen duen epean zehar.
- Tratamendua legez kontrakoa da eta datuak ezabatu orde, horien erabilpena mugatzea eskatzen duzu.
- GARBITANIA jada ez ditu behar datuak tratamenduaren helburuarentzako, baina zuk erreklamazioak jartzeko edo defendatzeko behar dituzu.
- Tratamenduaren kontra egin duzu GARBITANIAren legezko arrazoiak zure eskubidearen gainetik dauden egiaztatzen den bitartean

**Datuak transferitzeko eskubidea:** Eskubidea duzu helarazi dizkiguzun datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere, GARBITANIAk oztoporik jarri gabe. Honez gain, eskubidea izango duzu datu pertsonalak zuzenean beste arduradun bati transmiti diezaizkiogun, teknikoki posible bada. Hala ere, eskubide hau soilik izango duzu zure datu pertsonalak zure adostasunean edo zurekin dugun kontratu batean oinarrituta tratatzen ditugunean eta tratamendu hori bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

**Aurka egiteko eskubidea:** Zure datu pertsonalak tratatzeari uztea eskatzeko eskubidea duzu, adibidez, ditugun datuak okerrak direla edo erabiltzea behar ez dugula uste duzunean. Datu pertsonalen tratamenduaren helburua marketin zuzena bada, eskubidea izango duzu, edozein unetan tratamenduaren aurka egiteko; baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.

Horretarako, eskubide hau egikaritu dezakezu edota marketing mezuak bidaltzeari uztea eska dezakezu helburu komertzialak dituen bidalitako edozein mezu elektronikoren bidez harpidetza ezeztatuz. Zure egoera partikularra dela eta, eskubidea izango duzu, edozein unetan, zure datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, tratamendu hori gure interes legitimoetan oinarritzen bada eta zure eskubideak gailentzen direla uste baduzu. Hala ere, GARBITANIAk datuak

---

tratitzen jarraitu ahal izango du baldin eta arrazoi legitimo larriak daudela edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko beharrezkoa duela egiaztatzen badu.

**Zure datu pertsonaletan oinarrituta erabaki automatizatuen objektu ez izateko eskubidea, profilak egitea barne:**

Eskubidea duzu GARBITANIAk pertsonen esku-hartzerik gabe eta datuen tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta hartutako erabaki bati aurka egiteko. Hala ere, erabakiak zuregan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak sortzen baditu soilik izango duzu eskubidea. Deskribatutako erabaki mota horietako baten objektu izan bazara eta ados ez bazaude GARBITANIArekin harremanetan jarri eta erabakia berrikusteko eskatu pertsona baten esku-hartzea jasotzeko, bere ikuspuntua adierazteko edo erabakiaren kontra egiteko. Ez duzu kontra egiteko eskubidea izango baldin eta erabaki automatizatua: · Beharrezkoa bada zurekin kontratu bat egin edo betearazteko · Legeak baimentzen badu eta zure eskubideak eta askatasunak babesteko neurri egokiak badaude ·Zuk berariaz emandako adostasunean oinarritzen bada.

Mesedez, beharrezkotzat jotzen dituzun zehaztasunak edo zure eskaera modu egokian erantzuteko garrantzitsuak direla uste dituzun datu guztiak adierazi

Inprimakia modu egokian beteta bidali beharko duzu ordenamendu juridikoan baliozkoa den nortasun agiri ofizialaren fotokopiarekin batera. Hirugarren baten ordezkari bezala jardutekotan, ordezkariaren dokumentua ere bidali beharko da baita interesdunaren ordezkatzeko egiaztagiria.

Erantzuna gehienez hogeita hamar eguneko epean jakinaraziko da. Eskaeraren zailtasunagatik edo GARBITANIAk eskaera asko erantzun behar izateagatik bi hilabete gehiago luzatu ahalko da.

Erantzuna jaso nahi zaizun modua adierazi:

- Posta-helbidea
- Helbide elektronikoa

---

Data

---

**DATU PERSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA:** **Arduraduna:** GARBITANIA  
**Helburua:** Datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako eskubideen egikaritzan planteatutako eskaerak kudeatu eta erantzutea. **Legitimazioa:** Lege betebeharraren baten betepena **Eskubideak eta informazio gehigarria:** Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria gure webguneko pribatutasun atarian eskuragarri dago: <http://garbitania.eus/pribatutasuna/>